



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

**«BERRIKUNTZA ETA ESKU-HARTZEA HEZKUNTZAN» DOKTOREGO PROGRAMAREN GIDA
ETA ARAUDI AKADEMIKOA**

2022-2023

AURKIBIDEA

0. GIDA HONEN ALDAKETEN HISTORIA	3
I. SARRERA	4
II. DOKTOREGO PROGRAMAREN KOORDINAZIOA	5
III. «BERRIKUNTZA ETA ESKU-HARTZEA HEZKUNTZAN» DOKTOREGO PROGRAMAN LORTU BEHARREKO KONPETENTZIAK ETA PROGRAMAREN EGITURA	7
IV. DOKTOREGO PROGRAMAN IZENA EMATEA, SARBIDEA ETA ONARPENA	10
V. MATRIKULA	13
VI. PRESTAKUNTZARAKO OSAGARRIAK	15
VII. TUTOREA ETA TESI ZUZENDARIA ESLEITZEA TESIA ZUZENTZEKO	15
VIII. DOKTOREGO PROGRAMAKO JARDUEREN BEHIN-BEHINEKO PLANGINTZA	18
IX. DOKTOREGO TESI EGITEA	20
X. DOKTOREGO TESIAREN AURKEZPENA ETA IRAKURTZEKO TRAMITEA ONARTZEA	23
XI. DOKTORE TITULUA EMATEA	28
XII. MUGIKORTASUNA	28
XIII. NAZIOARTEKO DOKTOREAREN AIPAMENA	29
XIV. INDUSTRIA DOKTOREAREN AIPAMENA	30
XV. KOTUTORETZAN EGINDAKO TESIAK	32

0. GIDA HONEN ALDAKETEN HISTORIA

Bertsioa	Data	Egindako aldaketa
1. (hasierakoa)	2013-09-01	Onartu
2.	2016-06-20	99/2011 EDko azken arau-aldaketak berrikusi eta egokitu
3.	2017-06-17	Gatazken konponbiderako dokumentua sortu (D134 eta D140) Ikerketa Auzitegiak Ikerketa Plana ebaluatu
4.	2020-11-04	Doktorego programaren antolaketa berrikusi eta egokitu Prestakuntzarako osagarriak diren jarduerak berrikusi eta egokitu Doktorego programako jardueren behin-behineko plangintza berrikusi eta egokitu Argitalpen bilduma bidezko tesia egiteko irizpideak gaurkotu Epaimahaia osatzeko baldintzak egokitu Doktorego tesia jendaurrean irakurtzeko eta defenditzeko ekitaldia online egiteko aukera eman
5.	2021-11-08	Prestakuntzarako osagarrietarako irizpideak egokitu. Doktorego tesiaren aurkezpena eta irakurtzeko tramitea onartzeko prozedura gaurkotu. Epaimahaia osatzea eta haren alde zuzentzeko betebeharrak gaurkotu.
6.	2022-11-07	Industria-doktorea aipamena eskuratzeko baldintzak eta prozedura txertatu.

I. SARRERA

Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan lankidetzazko doktorego programa Vic-eko Unibertsitatea / Kataluniako Unibertsitate Zentralarekin batera diseinatu zen (aurrerantzean UVIC), Doktorego Ikasketa Ofizialak arautzeko urtarrilaren 28ko 99/2011 EDan ezarritakoari jarraituz. Unibasq-ek aldeko ebaluazioa eman zuen 2012ko maiatzaren 8an, eta ANECAk, berriz, 2012ko urriaren 5ean; 2014ko maiatzaren 23ko Ministro Kontseiluaren Akordioaren bidez onartu, eta 2014ko ekainaren 2ko Ebazpenean argitaratu zen (2014-06-12ko BOE). Programa ezartzea baimendu zen 2012ko irailaren 3ko Aginduaren bidez (2012-10-08ko EHAA).

Doktorego Programaren Batzorde Akademikoak (aurrerantzean, DPBA) antolatzen eta koordinatzen du programa, prestakuntza eta ikerketa jardueren ardura duen aldetik.

Gida honetan, batetik, doktoregoko prestakuntzaren prozesua bildu da, eta, bestetik, doktorego tesia gordailuan uzteari, irakurtzeari eta defendatzeari buruzko araudi espezifikoak ezarri, indarrean dauden lege xedapenekin eta Mondragon Unibertsitatearen (aurrerantzean, MU) araudia betez. Dokumentu publikoa da hau, eta unibertsitate komunitateko kideen zein doktorego programan interesa izan dezakeen edonoren eskura jarri da.

II. DOKTOREGO PROGRAMAREN KOORDINAZIOA

DOKTOREGO PROGRAMAREN BATZORDE AKADEMIKOA

Doktorego programa antolatzeko, koordinatzeko eta prestakuntza eta ikerketa jardueren garapenerako, bi espazio estrategiko-operatibo daude:

Batetik, MU-UVIC Doktore Programaren Batzorde Akademikoa (DPBA) dago. Batzordea honako hauek osatzen dute:

- MUko 3 doktore, programarekin lotura dutenak.
- UVICeko 3 doktore, programarekin lotura dutenak.

DPBAko kideetako bat doktorego programaren koordinatzailea izango da, 2 urterako. Lehen koordinatzailea MUK izendatuko du DPBAan dauden MUko 3 kideen artean; bigarrena, berriz, UVICek izendatuko du DPBAan dauden 3 kideen artean; eta hala segituko dute, hurrenez hurren, txandakatuta. Koordinatzaileak ikertzaile esanguratsua izan beharko du: gutxienez bi doktorego tesi izan behar ditu zuzenduak, eta gutxienez ikerketa aldi bat ziurtatuta edo goi mailako (JCR) 5 artikulua izan beharko ditu argitaratuta.

Bestetik, unibertsitate bakoitzak bere Doktorego Programaren azpibatzerde Akademikoa dauka. Azpi batzorde horiek osatuko dituzte gutxienez DPBA parte hartzen duten doktoreek. MUREn kasuan, HUHEZIKo Ikerketa eta Transferentziako taldekideek parte hartzen dute azpibatzerdean: 4 doktorek (horietako 3 DBPA orokorreko kide ere badira) eta idazkariak.

Batzorde eta azpibatzerdeek, koordinazioan, honako funtzio hauek beteko dituzte:

- Doktorego programako printzipio gidatzaileak aplikatzen direla zaintzea.
- Bi unibertsitateetako kudeaketa organoen arteko koordinazioa zaintzea, eta dekanok edo errektoreordeei jakinaraztea gai horri buruzko gorabeherak eta hobetzeko proposamenak.
- Programari dagokion araudi akademikoa prestatzea eta, hala behar izanez gero, moldatzea.
- Plazen eskaintza bat proposatzea ikasturte eta unibertsitate bakoitzean (unibertsitate bakoitzean, dagokion organoak onartuko ditu proposamenok).
- Arlo hauetako oinarritzko irizpideak ezartzea eta garatzea:
 - o Doktorego programako ikasleei dagokien kompetentzia esparrua.

- o Doktorego programako ikasleak onartzeko eta aukeratzeko baldintza eta irizpide osagarriak (bakarrak izango dira bi unibertsitateetan).
- o Irakasle eta tutoreak izendatzea, eta haien zereginak garatzea.
- o Tesi zuzendaria edo zuzendariak esleitzea eta haien funtzioak garatzea.
- Ikerketa Planaren eta Jardueren Dokumentuaren edukia lantzea, garatzea eta ebaluatzea.
- Ikasleen mugikortasuna:
 - Prestakuntza jarduera komunak diseinatzea bi unibertsitateetan.
 - Ikerketa mintegi komunak koordinatzea bi unibertsitateetan.
 - Baimena ematea mugikortasun egonaldietarako eta doktoregaiak goi irakaskuntzako erakundeetan edo prestigiozko ikerketa zentroetan egiten dituzten jardueretarako.
 - Doktoregaiak onartzea.
 - Doktoregai bakoitzaren Ikerketa Plana eta Jardueren Dokumentu Pertsonalizatua onartzea eta ebaluatzea urtero.
 - Programako doktoregai bakoitzari baimena ematea tesia aurkezteko (hala badagokio, tesia defenditzen duen unibertsitateko organo eskumendunak berretsi beharko du baimena).
 - Kalitatearen adierazleak jasotzea, unibertsitate bakoitzean jarraipena egiteko ezarritako protokoloiei segituz.
 - Programaren kalitatea ebaluatzeko beharrezkoak diren txostenak egitea, unibertsitate bakoitzeko eta dagokion autonomia erkidegoko araudiei jarraituz.
 - Unibertsitate bakoitzeko DPBAko hiru kideen proposamenak aztertzea eta ebatzea.
 - Doktoregaiei baimena ematea luzapenatarako eta aldi baterako etenatarako.

DPBA urtean hiru aldiz bilduko da gutxienez: doktoregaien matrikulazio epearekin batera, Jardueren Dokumentu Pertsonalizatua onartzearekin batera eta Ikerketa Planarekin eta hura ebaluatzeko epearekin batera.

III. «BERRIKUNTZA ETA ESKU-HARTZEA HEZKUNTZAN» DOKTOREGO PROGRAMAN LORTU BEHARREKO KONPETENTZIAK ETA PROGRAMAREN EGITURA

Doktorego programa bat doktore titulurako beharrezkoak diren konpetentziak eta trebetasunak lortzeko egiten den jardueren multzoa da. Doktorego programen helburua zera da: doktoregaiaren prestakuntzarekin lotutako zenbait alderdi garatzea eta doktorego tesiak egiteko prozedurak eta ikerketa lerroak finkatzea.

Ikerketa emaitza originalak ekarriko dituen doktorego tesi bat egin eta defendatutakoan amaituko dira doktorego ikasketak.

«Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan» lankidetzazko doktorego programaren helburua hau da: ikasleek MECESeko¹ 4. mailako konpetentziak lortzea, ikerketa tekniken gaineko prestakuntza aurreratua jasotzeko. Horretarako, doktoregaiak esparru hauetan araturiko konpetentziak lortzea bermatuko du programak:

- a) 2011ko urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuan ezarritako oinarritzko konpetentziak.
- b) Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruari buruzko 1027/2011 Errege Dekretuan ezarritako konpetentziak.
- c) Programan parte hartzen duten unibertsitateetan garaturiko konpetentzia propioak.

1. **2011ko urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuan ezarritako oinarritzko konpetentziak:**

- a) Ikerketa arlo bat sistematikoki ulertzea eta arlo horrekin loturiko ikerketa trebetasun eta metodoak ikastea.
- b) Funtsezko ikerketa edo sorkuntza prozesu bat pentsatzea, diseinatzea edo sortzea, praktikan jartzea eta bereganatzea.
- c) Ikerketa original baten bidez ekarpen bat egitea ezagutzaren mugak zabaltzeko.
- d) Azterketa kritiko bat, ebaluazio bat eta ideia berri eta konplexuen sintesia egitea.
- e) Dagozkion ezagutza arloen harira harremanak izatea komunitate akademiko eta zientifikoarekin eta orobat gizartearekin, nazioarteko komunitate zientifikoko ohiko modu eta hizkuntzetan.
- f) Aurrerabide zientifiko, teknologiko, sozial, artistiko edo kulturala sustatzea ezagutzan oinarrituriko gizarte baten barruan, testuinguru akademiko eta profesionalean.
- g) Informazio espezifiko gutxiko testuinguruetan moldatzea.
- h) Arazo konplexu bat konpontzean erantzun beharreko galdera gakoak aurkitzea.

¹ MECES: Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua

- i) Dagokion ezagutza arloan proiektu berri eta berritzaileak diseinatzea, sortzea, garatzea eta martxan jartzea.
 - j) Taldean zein bakarka lan egitea nazioarteko testuinguru batean edo diziplina anitzeko testuinguru batean.
 - k) Ezagutzak uztartzea, konplexutasunari aurre egitea eta iritzia ematea informazio mugatua izanik.
 - l) Konponbideen kritika eta defentsa intelektuala egitea.
2. **Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruari buruzko 1027/2011 Errege Dekretuan ezarritako kompetentziak:**
- a) Ezagutzaren mugako ezagutza aurreratuak bereganatzea eta alderdi teoriko eta praktikoak ulertzea ikerketa arlo batean edo gehiagotan, sakon, xehetasunez eta funtsarekin, nazioartean aitortutako ikerketa zientifikoaren testuinguruan.
 - b) Ekarpen original eta esanguratsua egitea ikerketa zientifikoari, dagokion ezagutza arloaren ezagutza mugatik harago, eta nazioarteko komunitate zientifikoak ekarpen hori aitortzea.
 - c) Erakustea gai direla ikerketa proiektu bat diseinatzeko egoera zehaztugabe bat kritikoki azterturik eta ebaluatuturik, beren ekarpenak, ezagutzak eta lan metodologia aplikatuz eta ideia berrien sintesi bat eginez, ikerketa testuingurua sakonago ezagutzeko modua emate aldera.
 - d) Autonomia nahikoa garatzea ikerketa talde eta proiektu berritzaileak eta lankidetzak zientifikoak hasi, kudeatu eta gidatzeko, nazioarte zein nazio mailan, dagokion gaiaren eremuan, diziplina anitzeko testuinguruetan eta, hala badagokio, ezagutzen transferentziari begira.
 - e) Gai izatea ikerketa jarduna erantzukizun sozialarekin eta osotasun zientifikoarekin garatzeko.
 - f) Agerian uztea gai direla dagokien ezagutza arloko eztabaida zientifikoetan parte hartzeko eta orotariko hartzaileen aurrean egiteko beren ikerketa jardueraren emaitzen zabalkundea.
 - g) Dagokien testuinguru zientifiko espezifikoaren barruan erakustea gai direla aurrerapenak egiteko kultura, gizarte eta teknologia gaietan, baita ezagutzan oinarrituriko gizarte baten alderdi guztietan berrikuntza sustatzeko ere.
3. **MUren eta UVic-en hezkuntza proiektuen kompetentzia komun propioak:**
- a) Espezialitate bereko edo antzekoetako pertsonekin lan egitea taldean. Beste ikertzaile batzuekin lankidetzan aritzea helburu komunak lortzeko lanetan. Ildo horretan, ekintzen plangintza egitea modu koordinatu batean, informazioa trukatzeko, ardurak hartzea eta gatazkak eta arazoak sortu ahala haiei aurre egitea.
 - b) Komunikazio eraginkorra lortzea. Informazioa bilatzea, erabiltzea, transmititzea eta/edo sortzea dauden iturriak eskuratuz, alderatuz eta landuz, eta dokumentazioa, egiteko moduak eta harreman erosoak sortzea egin beharreko lanen testuinguruan. Lorturiko informazioa aztertzea eta lan intelektual eta zientifikoaren ohiko konbentzioak eta zorrotasuna betetzea.

- c) Arazoak konpontzeari begirako pentsamendu bat garatzea. Proaktiboki jokatzeko arazoan aurrean (arazoak sortu ahala), erantzun alternatiboak planteatzea eta emaitza posibleak aurreratzea, erantzun eraginkorrena aukeratu eta egin beharreko lanen testuinguruan ebaluatzeko.
- d) Erabakiak hartzeari begirako estrategiak garatzea. Neurriak, proposamenak eta halakoak aukeratzea eta aplikatzea, zenbait aukeraren artean hautua eginda, denbora eta forma aldetik erantzuna emateko egin beharreko lanen testuinguruan sorturiko premia eta/edo egoerei.
- e) Lanaren gaineko ikuspegi orokor bat garatzea. Ikasturtean zehar garatu beharreko zeregin eta jardueren ikuspegi zabala izatea, plangintza eta antolaketa bati jarraituz lan egiteko, baliabideak aurreratuz eta ahaleginak behar bezala banatuz, egin beharreko lanen arabera. Hala, prestakuntza-aldian zehar, irudi zabal bat barneratuko dute aukeraturiko lanbideari buruz, lanbide horrek gizartean duen garrantziari buruz eta haren bilakaerari buruz (baldin eta halakorik badago), lan-munduan sartzeari eta ibilbide profesionala planifikatzeari begira.
- f) Lidergorako trebetasunak hartzea. Pertsonekin lan egiten jakitea, pertsonak dinamika batean sarraraziz eta horretara bideratuz, helburu komun bat erdiesteko, betiere egin beharreko lanaren ikuspegi global batekin eta hark eskatzen dituen ezaugarriak kontuan hartuz (kalitatea, epeak, etab.), eta norbanakoaren interesak eta interes kolektiboak orekatuz.
- g) Ikasten ikastea. Aldez aurretik bereganaturiko ezagutzak eta estrategiak aplikatzea, ikaskuntza berriak sortzeko. Horretarako, sortzen diren egoera guztietan ezagutza barneratzeko eta garatzeko prozedura eta testuinguru egokienak zein diren hausnartuko dute, gerora beste egoera batzuetara transferitzeko.
- h) Estrategia metodologiko kualitatibo zein kuantitatiboak lortzea, ikerketa proiektuaren premien arabera.

Hona hemen doktorego programa honetan lehenesten diren kompetentziak:

- a) Proiektuak diseinatzea, sortzea, garatzea eta martxan jartzea hezkuntza berrikuntzaren eta esku-hartzearen esparruan. (Iturria: Errege Dekretua).
- b) Hezkuntzaren esparruko konponbideen kritika eta defentsa intelektuala egitea. (Iturria: Errege Dekretua).
- c) Estrategia metodologiko kualitatibo eta kuantitatiboak lortzea hezkuntza berrikuntzaren eta esku-hartzearen esparruan, ikerketa proiektuaren premien arabera. Iturria: kompetentzia komun propioak).
- d) Taldean zein bakarka lan egitea nazioarteko testuinguru batean edo diziplina anitzeko testuinguru batean. (Iturria: Errege Dekretua).
- e) Gai izatea ikerketa jarduna erantzukizun sozialarekin eta osotasun zientifikoarekin garatzeko. (Iturria: Kualifikazioen Espainiako Esparrua).
- f) Komunikazio eraginkorra lortzea. Informazioa bilatzea, erabiltzea, transmititzea eta/edo sortzea dauden iturriak eskuratuz, alderatuz eta landuz, eta dokumentazioa, egiteko moduak eta harreman erosoak sortzea egin beharreko lanen testuinguruan. Lorturiko

informazioa aztertzea eta lan intelektual eta zientifikoaren ohiko konbentzioak eta zorroztasuna betetzea. (Iturria: kompetentzia komun propioak).

IV. DOKTOREGO PROGRAMAN IZENA EMATEA, SARBIDEA ETA ONARPENA

1. IZENA EMATEA

Doktorego programan sartzea eskatzeko, **D.101 DOKTOREGO PROGRAMAN SARTZEKO ESKABIDEA** inprimakia bete behar da, eta fakultateko Idazkaritza Akademikoan entregatu, inprimaki horretan eskatzen den gainerako dokumentazioarekin batera. Jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak (jatorrizkoekin batera) aurkeztu behar dira; dokumentuak alderatu bezain laster itzuliko dira jatorrizkoak.

2. INDARREAN DAUDEN LEGEEK PROGRAMAN SARTZEKO EZARRITAKO BALDINTZAK

1393/2007 EDko 19. artikulua eta 99/2011 EDko 6. artikulua arabera, honako hauek sartu ahal izango dira doktorego programan:

1. Gradu-titulu ofizial bat edo haren baliokidea, eta unibertsitate-master baten titulu ofiziala edo haren baliokidea dutenak, baldin eta gutxienez 300 ECTS gaindituak badituzte bi tituluen artean.

2. Kasu hauetan ere, programan sartzea onartuko da:

a) Espainiako edo Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremuko herrialderen bateko unibertsitate-titulu ofizial bat duten ikasleak, baldin eta master bat egiteko gaituak badira, urriaren 29ko 1393/2007 EDko 16. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta gutxienez 300 ECTS gaindituak badituzte unibertsitate-ikasketa ofizialetan; gainera, master-mailako kredituak izan behar dute haietarik 60k gutxienez.

b) Espainiako gradu-titulu ofizial bat duten ikasleak, baldin eta gutxienez 300 ECTS gaindituak badituzte, Europako Erkidegoko zuzenbidearen arauari jarraituz. Halako tituludunek prestakuntza-osagarriak egin beharko dituzte nahitaez, salbu eta kasuan kasuko gradu-tituluko ikasketa plangintzan eskaintzen bada ikerketarako prestakuntza metodologia, master-ikasketetako ikerketa-kredituen baliokide baitira formakuntza-balioari dagokionez.

c) Atzerriko hezkuntza sistemetako tituludunak, tituluak homologatu beharrik gabe. Kasu horietan, Unibertsitateak egiaztatuko du haien prestakuntza maila baliokidea dela Espainiako unibertsitate titulu ofizialekiko eta titulu horiek graduondoko ikasketak egiteko ahalmena

ematen dutela tituluak ematen dituzten herrialdeetan. Bide horretatik sartzek ez dakar, inondik ere, titulua homologatzea, ezta aitortzea ere, baizik eta soilik doktoregoko ikasketak egiteko aukera lortzea. Hala lorturiko doktore titulua baliozkoa izango da Espainian.

d) Ikasketa Aurreratuen Ziurtagiria duten lizentziadunak, arkitektoak eta ingeniariak, apirilaren 30eko 778/1998 EDan xedatutakoari jarraituz, edo ikerketa gaitasuna lortua dutenak, 185/1985 EDan araututakoari jarraituz.

e) Espainiako beste doktore titulu bat dutenak, betiere gorago aipaturiko unibertsitate araudiak betetzen badira.

f) Unibertsitateko titulu ofizial bat izatea, Goi-mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan 3. maila daukana, bat etorrita azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuarekin, xedatzen duena zeintzuk diren baldintzak eta prozedurak, batetik, unibertsitateko titulu eta maila akademiko ofizialetara homologazioak egiteko eta baliokidetasunak aitortzeko, eta, bestetik, atzerriko goi mailako ikasketak baliozkotzeko, eta xedatzeko zein den prozedura arkitekto, ingeniari, lizentziatu, arkitekto tekniko, ingeniari tekniko eta diplomadun titulu ofizialetarako goi mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako markoaren arabera parekotasunak zehazteko.

Hautagaien batek programan sartzeko baldintzak betetzen ez baditu, dagokion unibertsitateko Idazkaritza Akademikoak hala jakinaraziko dio, eta ez da onarpen prozesurik abiatuko.

3. PROGRAMAN SARTZEKO ETA ONARTZEKO PROFILA

DPBAk, doktoregoa egin nahi duten ikasleak onartzeaz arduratzen den organoak, honako onarpen-baldintza hauen arabera aztertuko ditu ikasleek aurkezturiko eskabideak:

- Doktoregaiaren alde aurretiko ikasketen egokitasun maila programarekin alderatuta.
- Aldez aurretiko ikasketen espediente akademikoa.
- Curriculum Vitae-a.
- Doktorego programan garatu nahi den Ikerketa Planari buruzko Memoria. D105. INPRIMAKIA.
- Helburuen adierazpena, hau da, hautagaiaren motibazio pertsonalen eta helburuen deskribapena, eta zergatik erabaki duen tokia eskatzea doktorego programan.

Horren osagarri gisa, honako baldintza hauek ere aintzat hartuko ditu DPBAk:

- Ingelesa edo hirugarren hizkuntza bat jakitea.
- Gomendiozko gutun bat edo gehiago, edo berme akademikoren bat izatea.

DPBAren esku egongo da irizpideok zehaztea eta zabaltzea, baita programarako sarbidea mugatzea ere, Batzordeak urtetik urtera onarturiko plaza kopuruaren arabera.

Onarpen-eskabideak aztertzeako prozedura:

Dokumentazio guztia jaso ondoren, DPBAko unibertsitate bakoitzeko batzordeak bildu, eta onarpen-eskabideak aukeratuko dituzte, irizpide hauen arabera (haien esku egongo da aurrez aurreko elkarrizketa bat eskatzea hautagaiari):

- Egokitasun maila, espediente akademikoa eta esperientzia profesionala (% 50eraino)
- Tesia doktorego programaren lerroren batean egiteko interesa eta ikerketa planaren memoria (% 30eraino)
- Doktorego aurreko laguntzaren bat jasotzea edo eskatzea lehiaketa publikoren batean, edo MUren edo UVICen lehiaketaren batean (% 15eraino)
- Beste merezimendu batzuk: gomendio eta berme akademikoak, hirugarren hizkuntza (% 5eraino)

Unibertsitate bakoitzak DPBAri aurkeztuko dio zer hautagai aukeratu duen; Batzordeak, gero, baimena eman edo ukatuko du hautagaiok onartzeko eta matrikulatzeko. Erabaki horren baldintza gisa jar liteke 20 ECTS gainditzea prestakuntza osagarri espezifikoetan, ikerketa materia espezifikoetan, prestakuntzazko gabeziak orekatzeko.

Doktorego programan **sartzeko gomendatzen den profila** honako hau da:

- Hezkuntzaren esparruko lizentziatura, gradu eta masterretako ikasleak
- Ikerketa materia espezifikoetan gutxienez 20 ECTS eginak dituzten ikasleak
- Hezkuntzaren esparruan esperientzia profesionala duten ikasleak
- Gaztelaniako, katalaneko eta/edo euskarako C1 maila eta atzerriko hizkuntza bateko B2 maila duten ikasleak

Dedikazio partzialeko ikasleak:

«Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan» doktorego programan, baldintza hauek betetzen dituzten doktoregaiek dedikazio partzialarekin egin ahalko dituzte doktoregoko ikasketak:

- Lanean aritzea eta ikasturtean zehar lan loturaren bat izatea egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztea. Lan loturaren berri emateko, lan kontratua edo administrazio izendapena aurkeztu beharko da.
- Desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsozialen bat izatea, % 33koa edo hortik gorakoa.

- Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaile nagusia izatea. Horren ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- 45 urte baino gehiago izatea.
- Goi mailako eta goi errendimenduko kirolaria izatea. Horren ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Adin txikiko seme-alabak izatea bere kargura. Horren ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Beste unibertsiteren batekin sinaturiko hitzarmenen baten aplikazio eremuan egotea.
- Besteren bat. Doktoregaiari ezinezkoa bazaio dedikazio osoa eskaintzea programan, horren ziurtagiria aurkeztu beharko du, DPBAk azter dezan.

Nolanahi ere, dedikazio partziala eskatzen duten doktoregaiak garbi adierazi beharko dute badutela denbora tesi proiektua egiteko eta beste unibertsitate edo ikerketa zentro batzuetan ikerketa egonaldiak egiteko.

Doktoregaia modalitate batetik bestera igaro daiteke, baldin eta fakultatean indarrean dauden araudi akademikoetan ezarritako eta iraunkortasunari buruzko baldintzak betetzen baditu.

D143 MODALITATE ALDAKETAREN ESKAERA dokumentua bete beharko du.

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei egokituriko onarpen sistemak eta prozedurak:

DPBAk onarpen prozedurak egokituko ditu desgaitasunen baten ondorioz premia bereziak dituzten ikasleen kasuan; aurretik, premia bereziak dituen ikasleak txosten bat aurkeztu beharko du, eta unibertsitate bakoitzaren egiturak hartuko dira kontuan. Batzordeak ebaluatuko du curriculum egokitzapenik edo ibilbide alternatiborik komeni den.

Txostena zerbitzu arduradunak bidaliko du; doktoregaiaren egoera ebaluatu, eta emaitzaren arabera erabakiko du ea beharrezkoa den curriculum egokitzapenik edo ibilbide edo ikasketa alternatiborik eskaintzea. Txostena DPBAri entregatuko zaio, azter dezan.

Doktoregaiak erakunde mediko ezagun edo ofizial batek egindako txostena aurkeztu beharko du, ezaugarriak zehaztuta.

Izena emandako ikasleei onartuak diren ala ez jakinaraztea:

DPBAk ikasleak onartzeko edo ez onartzeko akordioa egin eta gero, idazkaritza akademikoak erabakiaren berri emango die interesdunei, eta matrikula egiteko deialdia egingo du.

V. MATRIKULA

1. Doktorego programako ikasle berrien matrikula

Doktorego programan onarturiko ikasleek jakinarazpenean adierazten zaien epean egin beharko dute matrikula. Horretarako, idazkaritza akademikoan eskaturiko dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko dute.

Hurrengo urteetako matrikula

Doktorego programan jarraitu nahi duten ikasleek urtero egin beharko dute matrikula.

2. Baja eskatzea

Ikasturtean zehar baja eskatu nahi duten edo hurrengo urtean matrikularik egin nahi ez duten ikasleek idatziz jakinarazi beharko dute Idazkaritza Akademikoan, **D.118 DOKTOREGOAN BAJA/ETENA ESKATZEKO ESKABIDEA** dokumentua aurkeztuta. Idazkaritza akademikoan baja eskabidea jaso eta hurrengo hilabetetik aurrera ez da kobratuko matrikulari dagokion gasturik.

Errendimendu okerraren ondoriozko baja behartua

Tutoreak eta zuzendariak doktoregai baten baja proposatu ahal izango diote DPBAri, edozein unetan, haren errendimendua okertzat joz gero, bereziki arrazoitu gabeko atzerapenik egonez gero tesia egiteko aurreikusitako ikerketa plana egitean.

DPBAk zuzendarien baja proposamenak aztertu eta baja prozesua abian jarri ala ez erabakiko du. Baiezkoan, organoaren erabakiaren berri emango dio doktoregaiari, eta aukera emango zaio helegitea aurkezteko erabakiaren aurka, idatziz, hilabete naturaleko epean, nahi beste azalpen emanda.

Ikaslearen ekarpena azterturik (halakorik balego), DPBAk berriz aztertuko du baja eskaera, eta, gero, erabakiaren berri emango dio interesdunari. Erabakia apelaezina eta ezeztuezina izango da.

3. Matrikularen prezioa

HUHEZIKo Kontseilu Errektoreak urtero ezartzen ditu ikasturte berrirako matrikularen prezioak.

Ikasturte bakoitzean ordaindu beharreko prezioa bakarka jakinaraziko zaie ikasturte akademikoan matrikulatutako ikasleei.

4. Eskola aseguruua

Eskola aseguruua 1953ko uztailaren 17ko Legearen bitartez sortu zen (abuztuaren 18ko BOE), ikasleen aurreikuspen soziala bermatzeko eta haiei babesa eta laguntza emateko egoera kaltegarri, ustekabeko eta aurreikusgarrietan.

Eskola aseguruua nahitaezkoa da, eta matrikularekin batera egiten da.

Eskola aseguruaren aplikazio eremuan, fakultateetako eta goi mailako eskola teknikoetako ikasleak sartzen dira; haien artean daude doktore titulua lortzeko unibertsitate ikasketak egiten dituzten ikasleak.

Eskola aseguruua herrialde hauetako ikasleek baliatu ahal izango dute: Espainia, Hispanoamerika, Portugal, Andorra, Filipinak eta, oro har, isilbidezko edo esanbidezko elkarrekikotasun hitzarmena duten herrialdeak.

Eskola aseguruaren betebeharretik salbuetsita daude prestakuntza aldia betetzen ari diren ikertzaile langileak, baldin eta bekaren bat jaso badute prestakuntza aldia betetzen ari diren ikertzaile langileen erregimen juridikoaren barnean, zeina urtarrilaren 27ko 63/2006 EDaren bitartez onartu baitzen (BOE 29. zk., otsailaren 3koa).

Aseguruua aplikatzeko adin muga 28 urtekoa da; hortaz, 28 urtetik gorako ikasleek aseguruu espezifiko bat egin beharko dute.

Eskola aseguruuan, istripuztat hartuko dira ikasleek zentrorako joan-etorrietan izandako gorputz lesio guztiak; ikasketekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten jardueretan izandako istripuak ere aintzat hartuko dira, hala nola kirol-jarduerak, bilerak, ikasketa bideak eta praktika bidaiak. Halakoetan, jarduerak eskola honek antolatuak izan beharko dute.

Eskola aseguruak prestazio ekonomiko eta sanitarioak eskaintzen ditu estaldura gisa.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren bitartez egin behar dira eskaerak.

Eskola aseguruak estaldura ematen duen ezbeharren bat izanez gero, ikasleak lehenbailehen jakinarazi beharko du fakultateko Administrazio Sailean.

VI. PRESTAKUNTZARAKO OSAGARRIAK

Aldez aurretik ikerketa materia espezifikoaren 20 ECTS egin gabe edo partzialki eginak izanez gero, Doktorego Programan bertan ikerketa ibilbidea egin beharko dute ikasleek lehen ikasturtean.

DPBAk zehaztuko du zer materia egin behar dituen ikasle bakoitzak bere prestakuntza osatzeko.

Honako hauek nahitaez egin beharko dute prestakuntza osagarria:

- 300 ECTSkoko gradu tituluren bat duten doktoregaiak, salbu kasuan kasuko gradu tituluko ikasketa plangintzan eskaintzen bada ikerketarako prestakuntza metodologia,

master ikasketetako ikerketa kredituen baliokide baitira prestakuntza balioari dagokionez.

- Kualifikazioen Espainiako Esparruko mailetara egokitzeko prozedura aplikatuz sartzen diren ikasleak, titulu ofizial hauen goi hezkuntzari dagokionez: arkitektoak, ingeniariak, lizentziadunak, arkitekto teknikoak, ingeniari teknikoak eta diplomadunak (967/2014 ED).

Materia horien ikaskuntza emaitzak, prestakuntza jarduerak, ebaluazio sistemak eta abar halakoetan ohikoak direnak dira, titulu hauetakoak: Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra (LIT), eta Gizarte Ekonomia eta Enpresa Kooperatiboa unibertsitate masterra (MCOOP) (biak ere MUkoak). Prestakuntzarako osagarriak gaindituko ez balitu, doktoregaiak ezingo du ikasketekin jarraitu.

VII. TUTOREA ETA TESI ZUZENDARIA ESLEITZEA TESIA ZUZENTZEKO

TUTOREA ETA ZUZENDARIA IZENDATZEA

Doktorego programan onartu eta gero, DPBAk tutore bat esleituko dio ikasleari, eta, gehienez ere 6 hilabeteko epean, zuzendari bat.

Zuzendaria esleitzeko, kontuan hartuko da onarpen eskabidean egindako proposamena, baita dagokion ikerketa lerroarekin loturiko doktoreak libre dauden ala ez. UVICeko edo MUko zuzendari bat proposatuz gero, hark hartuko ditu tutore gisa dagozkion ardura akademikoak ere. UVIC edo MUz kanpoko zuzendariren bat proposatuz gero, matrikulatutako unibertsitateko tutore bat esleituko dio DPBAk ikasleari. Komenigarritzat joz gero, DPBAk tesi zuzendarikideak ere izendatuko ditu.

1. Ikasle bakoitzari esleituriko tutorea

Tutorea arduratuko da prestakuntza eta ikerketa jarduera programara egokitzeaz, eta doktore bat izango da, doktorego programara atxikia eta doktoregaiaren tesi proiektuaren ikerketa lerroarekin lotura duena.

DPBAk esleituko du tutorea, doktoregaia matrikulatutako unibertsitateko azpi batzordeak proposatuta. Tutorea ikerketa esperientzia egiaztatua duen doktore bat izango da, eta doktoregaiaren eta DPBAren arteko interakzioaz arduratuko da.

Tutorearen funtzioak hauek dira:

- Prestakuntza jardueren koherentzia eta egokitasuna planifikatzea eta gainbegiratzea, zuzendariarekin koordinatuta.
- Prestakuntza jardueren eta Ikerketa Planaren aldizkako segimendua egitea, zuzendariarekin batera.

- Doktoregaiaren eta DPBAren arteko interakzioa zaintzea.
- Laguntza ematea ikaslearen lan plangintza orokorrean planteaturiko helburu eta xedeak lortzeko azpiegiturara iristeko.
- Ziurtatzea doktoregaiak ezagutzen duela doktorego programaren araudi akademikoa.

Matrikula eginez geroztik gehienez ere sei hilabeteko epean esleituko da tesi zuzendaria, eta, hala badagokio, baita zuzendarikidea ere. Gerta daiteke zuzendaria (eta, hala badagokio, zuzendarikidea) eta tutorea pertsona bera izatea; betiere, ikerketa esperientzia egiaztatua duen doktore senior bat izango da.

DPBAren esku egongo da doktoregaiaren doktorego tesiaren tutorearen izendapena aldatzea, doktorego aldiko edozein unetan, baldin eta horretarako arrazoi justifikaturik badago.

2. Tesi zuzendaria eta, hala badagokio, zuzendarikidea

Tesi zuzendaria doktoregaiaren ikerketa lanen arduradun nagusia da, eta ikerketa esperientzia egiaztatua duen doktore bat izango da, programa honetan parte hartzen duten bi unibertsitateetako batekoa.

Tesi zuzendariaren (eta, hala badagokio, zuzendarikidearen) funtzioak hauek dira:

- Ikerketa Plana diseinatzeko laguntza eta orientabidea ematea, tutorearekin lankidetzan, eta Ikerketa Planaren segimendua egitea, aldizka bilerak planifikatuz.
- Prestakuntza jardueren koherentzia eta egokitasuna planifikatzea eta gainbegiratzea, tutorearekin koordinatuta.
- Doktoregaiari laguntzea unibertsitateak doktoregaiari ikerketa jarduerak garatzeko eskura jarritako ekipo eta azpiegiturak lortzen.
- Prestakuntza jarduerak eta Ikerketa Plana ebaluatzea eta horri buruzko txosten arrazoitu bat egitea, tutorearekin batera, urtero.
- Ikasleen ezagutza, trebetasun, helburu eta bokazioak identifikatzea, garrantzitsuak izango direlakoan ikaskuntza prozesuari eta tesi lanaren garapenari begira.
- Ikasleari laguntzea eta babestea ikerketarako, lan independenterako eta analisi kritikorako gaitasuna garatzen.
- Laguntza ematea ikasleak bere ikergai sakondu dezan bere esparruko adituekiko eta pare akademikoekiko interakzioaren bitartez.
- Doktoregaiari lan segurtasunerako arauak jakinaraztea, behar izanez gero.
- Tesi proiektutik eratorritako argitalpen zientifikoak irakurtzea, zuzentzea eta komentatzea.
- Ziurtatzea doktoregaiak badakiela zein diren tesia defenditzeko baldintza administratibo eta akademikoak, baita prozesu osoko epeak zein diren ere.

3. Tesi zuzendarikidea

Zuzendarikidea Espainiako edo atzerriko doktore bat izango da, ikerketa esperientzia egiaztatua duena tesi proiektuaren gaiaren inguruan. Ikerketa esperientzia egiaztatua duen

zuzendariarekin batera esperientziarik gabeko zuzendarikide junior bat egotea sustatuko da, tesi zuzendaritzan aholkularitza eta prestakuntza prozesua aberasteko bide gisa.

DPBAk izendatuko du zuzendarikidea; aldez aurretik, **D.125 TESI ZUZENDARIKIDEA ESKATZEKO INPRIMAKIA** aurkeztu behar da.

Zuzendarikideak lehen onarpenetik gehienez ere 6 hilabetera izendatuko dira.

DPBAk tesi zuzendarikidea egotea sustatuko du, honako hauek helburu harturik:

- Programan parte hartzen duten bi unibertsitateen arteko ikerketa proiektuak sustatzea.
- Ikerketa planteamenduetan diziplina anitzeko ikuspegiak sustatzea.
- Nazioarteko mugikortasuna sustatzea, bai irakasleena, bai ikasleena, Nazioarteko Doktoarearen titulua lortzeko eta, hala, doktorego programako ikerketa taldeen nazioarteko harremanak bultzatzeko.
- Doktore gazteak erakartzea, tesi zuzendaritzako eta segimenduko lanak egiteko prestakuntza jaso dezaten esperientzia duten doktoreekin batera.
- Gero eta tesi gehiagotan sartzea atzerriko zuzendarikideak.

Gehienez ere bi zuzendarikide izango ditu tesi bakoitzak, horretarako funtsezko arrazoiak Doktorego Batzordeak ontzat emanez gero.

Funtzio horiek betetzeko konpromisoa idatziz jasoko da, unibertsitateak, doktoregaiak, tutoreak eta zuzendariak sinatuta, baita gatazkak konpontzeko prozedura eta jabetza intelektual eta industrialarekin loturiko eskubideak ere. Konpromiso hori gauzatzeko, hiru aldeek **D.134 ALDEEN KONPROMISOAK DOKTOREGOAREN GARAPENEAN** dokumentua sinatu behar dute.

Beharrezkoa bada, konfidentzialtasunaren protokoloa ere sinatuko da, beste dokumentu batean.

Tesi zuzendariak, tutoreak edo doktoregaiak gatazkak konpontzeko prozedura bat hasi nahi izanez gero, **D.140 GATAZKETAN ESKU HARTZEKO ESKABIDEA** dokumentua bete eta Zerbitzu Akademikoetan entregatu beharko dute.

VIII. DOKTOREGO PROGRAMAKO JARDUEREN BEHIN-BEHINEKO PLANGINTZA

Taula hauetan laburbildu dugu nola planifikatu diren doktoregoko jarduerak, doktoregaiaren dedikazioaren arabera (osoa edo partziala) eta jarduerak noiz eta nork gainbegiratu dituen ere kontuan hartuta:

DEDIKAZIO OSOKO doktoregaien jardueren kontrola				
NOIZ	JARDUERA	JARDUERA BETETZEN DEN ALA EZ GAINBEGIRATZEA ETA EBALUAZIOA	GAINBEGIRATZE ETA EBALUATZE LANEN ARDURADUNA	
1. URTEA	Ikerketa Plana garatzea	Doktoregoko lehen urtearen erdialdean	Tesi tutorea eta zuzendaria	DPBA

	Lehen urtean egindako jardueren dokumentua	Doktoregoko lehen urtearen amaieran		
2. URTEA	Jardueren Dokumentua: ikasturtean zehar egindako jardueren bilduma	Doktoregoko bigarren urtearen amaieran	Tesi zuzendaria	DPBA
3. URTEA	Jardueren Dokumentua: ikasturtean zehar egindako jardueren bilduma	Doktoregoko hirugarren urtearen amaieran	Tesi zuzendaria	DPBA
4. URTEA	Tesia gordailuan uztea, aurkeztea edo luzapena eskatzea	Luzapena eskatzea ikasturtearen hasieran Tesia gordailuan uztea eta aurkeztea ikasturtean zehar	Tesi zuzendaria	DPBA
5. URTEA	Tesia gordailuan uztea eta defenditzea	Tesia gordailuan uztea eta aurkeztea ikasturtean zehar	Tesi zuzendaria	DPBA

DEDIKAZIO PARTZIALEKO doktoregaien jardueren kontrola				
NOIZ	JARDUERA	JARDUERA BETETZEN DEN ALA EZ GAINBEGIRATZEA ETA EBALUAZIOA	GAINBEGIRATZE ETA EBALUATZE LANEN ARDURADUNA	
1. URTEA	Ikerketa Plana garatzea Lehen urtean egindako jardueren dokumentua	Doktoregoko lehen urtearen amaieran Doktoregoko lehen urtearen amaieran	Tesi tutorea eta zuzendaria	DPBA
2. URTEA	Jardueren Dokumentua aurkeztea: ikasturtean zehar egindako jardueren bilduma	Doktoregoko bigarren urtearen amaieran	Tesi zuzendaria	DPBA
3. URTEA	Jardueren Dokumentua: ikasturtean zehar egindako jardueren bilduma	Doktoregoko hirugarren urtearen amaieran	Tesi zuzendaria	DPBA
4. URTEA	Jardueren Dokumentua: ikasturtean zehar egindako jardueren bilduma	Doktoregoko laugarren urtearen amaieran	Tesi zuzendaria	DPBA
5. URTEA	Jardueren Dokumentua: ikasturtean zehar egindako jardueren bilduma	Doktoregoko bosgarren urtearen amaieran	Tesi zuzendaria	DPBA
6. URTEA	Tesia aurkeztea edo luzapena eskatzea	Luzapena eskatzea ikasturtearen hasieran Tesia gordailuan uztea eta aurkeztea ikasturtean zehar	Tesi zuzendaria	DPBA
7. URTEA	Tesia aurkeztea edo luzapena eskatzea	Luzapena eskatzea ikasturtearen hasieran Tesia gordailuan uztea eta aurkeztea ikasturtean zehar	Tesi zuzendaria	DPBA
8. URTEA	Tesia gordailuan uztea eta defenditzea	Tesia gordailuan uztea eta aurkeztea ikasturtean zehar	Tesi zuzendaria	DPBA

Urtean behin, doktorego tesien garapena kontrolatzeko saio bat egingo da; lehenbizi, tutoreak eta zuzendariak egingo dute, eta, gero, DPBAk.

Matrikulatutako lehen urtearen erdialdean, ikasleek Ikerketa Plana aurkeztu beharko dute; **(D.139 IKERKETA PLANA)**. Horrez gainera, ikasleek Jardueren Dokumentua entregatu beharko dute ikasturtero: **D.139.1 JARDUEREN DOKUMENTU PERTSONALIZATUA**.

IKERKETA PLANEAN, honako atal hauek bildu behar dira:

- a) Sarrera
- b) Helburuak, ikerketa lanaren plangintza global edo estrategikoa, eta urteko plangintza, helburu estrategikoak kontuan hartuta ikasturte akademikoko jarduerak zehaztuz
- c) Plana (metodologia, emaitzen analisia, etab.)
- d) Zer baliabide dituen eskura (ikerketa proiektu finantzatuak, ikerketa taldeak, bekak, etab.)
- e) Erreferentzia bibliografikoak
- f) Lan kronograma

Ikerketa Planak zuzendariaren bermea izan beharko du, eta, hala badagokio, baita tutorearena ere. Berariaz izendatu eta osaturiko Ikerketa Epaimahaiaren aurrean aurkeztu eta defendatu beharko da. Aukera izango da tesia egin bitartean Ikerketa Plana hobetu, xehetasunak gehitu eta aldatzeko, baldin eta behar bezala justifikatuta badago eta DPBAri ematen bazaio horren berri.

JARDUEREN DOKUMENTUA tutorearekin eta zuzendariarekin batera adostu eta planifikatu beharko da. Zehazki, ikasturtean zehar zer jarduera egiteko konpromisoa hartzen den bilduko da: mintegiak, prestakuntza ikastaroak, lantegiak, doktoregaiantzako jardunaldiak, biltzarrak, egonaldiak, ikerketa proiektuetan parte hartzea, eta abar.

Ikerketa Plana aurkeztu ondoren, aldeko ebaluazioa beharrezkoa izango da programan jarraitzeko. Jardueren Dokumentu Pertsonalizatua eta Ikerketa Plana onartzeko, DPBAk irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- Prestakuntza jarduerak bat egitea tesiaren esparru zientifikoari dagozkion kompetentziekin: biltzarrak, jardunaldiak, proiektu finantzatuetan parte hartzea, eta abar.
- Prestakuntza jarduerak bat egitea zeharkako kompetentziekin: komunikazio trebetasunak, bibliografiaren kudeaketa, hizkuntzak, ikerketarako metodologia, eta abar.
- Urteko ikerketa planak plangintza global edo estrategikoarekin bat egitea, metodologia, helburuak, baliabideak eta behin-behineko plangintza kontuan hartuta.
- Jardueren Dokumentu Pertsonalizatuko jarduerak egokitzea, Ikerketa Plana ahalik eta hobekien gauzatu dadin.
- Zuzendariak eta, hala badagokio, tutoreak egindako txostenak.

Tesia amaitu bitarteko urteetan, urtero kontrolatuko da ikerketaren garapena, Jardueren Dokumentua ebaluatuz. Doktoregaiak etengabe aberastu beharko du dokumentu hori. Kontrola eta ebaluazioa tutoreak, zuzendariak (edo zuzendariak) eta DPBAk egingo dute.

Azkenik, tesia aurkeztean eta defenditzean, epaimahaiak ebaluazio kualitatiboa egingo du doktoregaiak Jardueren Dokumentuan aurkezturiko jardueren gainean.

IX. DOKTOREGO TESIA EGITEA

Doktorego tesia jatorrizko ikerketa lan bat izango da, doktoregaiari dagokion doktorego programaren esparru zientifiko, tekniko edo artistikoarekin loturiko gai bati buruzkoa. Tesia eginez gero, ikasleek doktorego ikasketak amaitu eta doktore titulua eskuratuko dute.

Tesia doktorego programaren lerroren batean kokatu behar da; hau da, "Berrikuntza eta esku-hartzea gizarte kulturantz eta eleanitzetan" lerroan edo "Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntza inklusiboan" lerroan.

Tesia bi modutara aurkez daiteke: ikerketa proiektu baten garapen gisa edo argitalpen bilduma gisa.

1. IKERKETA PROIEKTU BATEN GARAPENAREN ONDORIOZKO TESIA

Tesiarekin batera, tesiaren memoria idatzi behar da, tesian egindako lana bilduz, honela:

Tesi memoria

Jatorrizko lan bat izan behar du, alde guztiak orekatuta dauzkana eta batasuna eta koherentzia ageri dituen. Tesia egitean, gutxienezko arau batzuk hartu behar dira kontuan:

- a) **Azala.** Egindako lana doktorego tesi bat dela adierazi behar da, izenburua (azpi-izenburua ere bai, halakorik izanez gero), egilea, zuzendaria eta zuzendarikidea (halakorik izanez gero), saila, fakultatea, unibertsitatea eta urtea jarrita. Liburuki bat baino gehiago izanez gero, liburukiaren zenbakia adierazi behar da haietako bakoitzean.
- b) **Atalak.** Gutxi gorabehera, atal hauek agertuko dira tesiaren egiturari:
 - I. Aurkibidea
 - II. Sarrera orokorra
 - III. Helburuak, prozedurak eta metodologia
 - IV. Garapena, ekarpenak, emaitzak eta eztabaida orokorra
 - V. Ondorio orokorrak
 - VI. Erreferentzia bibliografikoak
- c) Tesia Kataluniako eta Euskal Herriko hizkuntza ofizial batean edo ingelesez idatziko da. Salbuespen gisa, DPBAk baimena eman lezake tesia beste hizkuntza batean idazteko, horretarako arrazoi akademikorik badago.

- d) Nazioarteko Doktoretzaren izendapena lortu nahi duten tesien zati bat Espainiako hizkuntza ofiziala ez den beste hizkuntza batean idatzi behar da (gutxienez, laburpena eta ondorioak). Ikus gai honi buruz XIII. atala.

2. ARGITALPEN BILDUMA BIDEZKO TESIA

Bilduma bidezko tesian, doktoregaiak, doktorego tesien ohiko prozesuari jarraitu ordez (hau da, definizioa, garapena eta ondorioak), erakutsi beharra dauka ekarpen esanguratsuak egin dituela, bai kopuruari dagokionez, bai kalitateari dagokionez, ikergai jakin bati buruz. Ikergaiak ongi definituta egon behar du.

Argitalpen bilduma bidezko tesia aurkezteko, beharrezkoa izango da:

- Gutxienez hiru ikerketa esanguratsu argitaratzea. Hiru argitalpenek bat egin behar dute ISI-Journal Citation Reports (JCR) edo SCOPUS sistemarekin. Onartuko da euskarazko argitalpen batek hiru argitalpen horietako bat ordezkatzea, baldin eta aldizkari hori CIRC sailkapenean baldin badago.
- Argitalpenari eska dakizkiokeen ezaugarriak:
 - o Doktorego ikasketak hasiz geroztik argitaratuak izatea.
 - o Tesia aurkezteko unean argitalpenak onartuta egotea ikerketaren arloko erreferentziako aldizkarietan argitaratzeko (argitalpenen eraginaren faktorearen arabera egiaztatzen da hori).
 - o Doktoregaia izatea aurkezturiko hiru argitalpenen lehen egilea.
 - o Tesi zuzendaria ere izatea egileetako bat.
 - o Artikuluaren gainerako egileen baimena argitaratzeko.
 - o Gainerako egilekideek ezin erabiliko dute lan bera tesia argitalpen bilduma bidez aurkezteko (argitalpenen egilekide ez-doktoreei eskatuko zaie berariaz uko egiteko aukera horri).
 - o Aurkezturiko lanen egilekideak ezin egongo dira tesia epaituko duten epaimahaian.

Argitalpen bilduma bidez aurkezturiko doktorego tesien txostenek honako atal hauek izan behar dituzte:

- Sarrera orokor bat, lanak aurkeztu, eta tesiaren gaia eta artikulua bildumaren koherentzia justifikatzeko.
- Lorturiko emaitzen, emaitza horien gaineko eztabaidaren eta azken ondorioen laburpen orokor bat.
- Argitaraturiko lanen kopia bat, egilekide guztien izena eta afiliazioa adierazita. Lana argitaratu duen edo argitaratzeko onartu duen aldizkariaren erreferentzia osoa ere eman behar da. Oraindik argitaratu ez diren baina argitaratzeko onarpena jaso duten lanen kasuan, aldizkariaren onarpen ziurtagiria eta erreferentzia osoa eman behar da. Gainera, argitalpen guztietan, aldizkariaren eragin faktorea, kuartila eta ezagutza esparrua adierazi behar dira.
- Lanen bat araudi honen 15.2. artikuluan aipaturiko hizkuntzez beste batean idatzia egonez gero, egindako lanaren laburpen bat gehitu behar da hizkuntza ofizial batean

idatzita. Doktorego tesi osoa beste hizkuntza batean idatzia bada, DPBAK baimena eman behar du eta gehienez ere bost orrialdeko laburpen bat idatzi behar da hizkuntza ofizial batean.

- DPBAK erabakitzen dituen beste baldintza batzuk.

Doktorego tesia argitalpen bilduma bidez aurkeztu nahi duten doktoregaiak eskabide bat aurkeztu behar dute izena emandako unibertsitateko DPBAren, eta dokumentazio hau aurkeztu:

- a) Tesi zuzendariaren txosten bat, doktorego programaren koordinatzailearen onespena barne, tesia bilduma bidez aurkeztea ontzat ematen duena.
- b) Argitalpen bilduma osatzen duten artikulua edo argitalpenen zerrenda.
- c) Doktorego tesia osatzen duten artikuluen eta beste argitalpenen kopia bat, argitaratutako aldizkari edo halakoan eragin faktorea zehaztuta.
- d) Doktoregaiak tesi gisa aurkezturiko argitalpenen egilekideen baimen idatzia.
- e) Aurkezturiko lanen egilekide ez-doktoreen ukoa lanok beste doktorego tesi baten atal gisa aurkezteari.

3. Tesiaren segimendua eta kontrola. Doktorego tesia egiteko epea

Dedikazio osoko doktoregaiak 3 urteko epea izango dute gehienez tesia egiteko; dedikazio partzialekoek, berriz, 5 urtekoa. Epea urtebete edo bi urte luzatzeko aukera izango da, hurrenez hurren, interesdunak hala eskatu eta alde zuzenetik DPBArekin hala adostuz gero. Salbuespenezko kasuetan, beste urte bateko luzapena ere onartuko da (beraz, 5 urteko epea dedikazio osokoetan eta 8koa partzialekoetan). Tutoreak eta tesi zuzendariak txosten bat idatziko dute luzapenaren arrazoiak azalduz, eta DPBAK horren arabera hartuko du erabakia.

Epemuga horietan ez da kontuan hartuko 1. modulua egiteko behar izandako denbora (hau da, prestakuntza osagarri dagokiena), ezta gaixotasun baten, haurdunaldi baten edo indarrean den araudian aurreikusitako beste kausaren baten ondoriozko bajak ere.

Bestalde, doktoregaiak urtebeteko behin-behineko baja eska dezake programan; gero, beste urtebete ere luza daiteke eskaera. Beraz, eskaera DPBAri egin eta arrazoitu, eta hark erabakiko du onartu ala ez.

Doktoregaiak, ezinezkoa badu tesia garaiz bukatzea arrazoi pertsonal edo profesional baten ondorioz, luzapena eskatzeko aukera izango du. Horretarako, **D.141 DOKTOREGO TESIAREN LUZAPENERAKO ESKABIDEA** bete, eta DPBAra bidali beharko du, tesi zuzendariaren txosten batekin batera, tesiaren egoeraren berri emanaz eta luzapen eskaeraren arrazoiak azalduz.

Eskaera hori doktorego programaren azken hiruhilekoaren aurreko 6 hilabeteetan zehar egin beharko da, bai dedikazio osoko tesietan, bai partzialekoetan.

DPBAK txosten horren arabera erabakiko du luzapena onartu ala ez; urtebetekoa izango da luzapena, eta, salbuespenezko kasuetan, beste urte bat gehitu ahalko da. Dedikazio partzialeko tesietan, beste bi urteko luzapena lortu ahalko da, baita, salbuespenezko kasuetan, beste urtebete ere.

X. DOKTOREGO TESIAREN AURKEZPENA ETA IRAKURTZEKO TRAMITEA ONARTZEA

1. AURKEZPENA

Doktorego tesia bukatu ondoren, tesia irakurri baino hiru hilabete lehenago gutxienez, doktoregaiak **D.107 DOKTORE TESI TRAMITERAKO ONARTZEKO ESKABIDEA** aurkeztuko dio matrikulatutako unibertsitatean dagokion unitateari, DPBAko presidenteari. Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek gehitu behar dira:

- a) Doktorego tesiaren zuzendariak eman eta tutoreak berretsitako baimena (jatorrizko dokumentua edo kopia konpultsatua), eta doktoregaia matrikulatuta dagoen unibertsitate sailaren aldeko txostena. **D.108A SAILAREN ADOSTASUNA ETA TESI ZUZENDARIAREN BAIMENA TESI AURKEZTEKO, ETA EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.** Dagokion sailean aurkeztu beharko da, gordailuan utzi baino hilabete lehenago.
- b) Tesiaren edukien laburpena (**D.111A, D.111B, D.111C DOKTOREGAIAREN FITXA ETA TESIAREN LABURPENA**), gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.
- c) Jardueren Dokumentu Pertsonalizatua.
- d) Doktorego tesiaren bertsio digitala
- e) Doktoregaiaren curriculum PDF formatuan.
- f) Tesia epaituko duen epaimahaiaren proposamena; zehazki, gaian adituak diren bost izen (horietako 3 titular eta 2 ordekoak). Haietariko bi gehienez ere izango dira UVICeko edo MUko kideak. Bestalde, tesia irakurtzeko data bat ere proposatuko da, horretarako araturiko inprimakiaren bidez. Eskabide horrekin batera, epaimahaiko kideen curriculum eta haien onarpen dokumentua ere aurkeztu beharko dira.
- g) Doktoregaiak nazioarteko aipamena lortu nahi izanez gero, ziurtagiri bidez egiaztatu beharko du betetzen dituela 99/2011 EDko 15. artikuluan ezarritako baldintzak.
- h) Argitalpen bilduma bidez aurkezturiko tesien kasuan, araudi honetako IX. ataleko 2. puntuan adierazitako dokumentazioa gehitu beharko da. **D.108B SAILAREN ADOSTASUNA ETA TESI ZUZENDARIAREN BAIMENA TESI BILDUMA ARGITALPENEN BIDEZ AURKEZTEKO, ETA EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA**
- i) **D.127 TESI ERREPRODUZITZEKO ETA ZABALTZEKO BAIMENA** inprimakia, baldin eta doktoregaiak baimena ematen badu tesiaren zabalkundea MUko liburutegiaren bitartez egiteko, Creative Commons lizentziaren babespean.

Unibertsitate bakoitzeko azpibatzerdeko kideek bilera bat egingo dute tesia gordailuan uzteko data finkatzeko, eta lankidetzazko doktorego programan parte hartzen duten sail, unibertsitate institutu eta zentro guztiei jakinaraziko diete. DPBAk, beraz, tesia gordailuan uzteko epe bat emango du, eta tesiaren ale bat utziko du idazkaritza akademikoan, MUko edozein doktorek kontsultatzeko moduan. Edozein doktorek irakur dezake tesia, eta, oharrik egin nahi izanez gero, DPBAri bidaliko dizkio, idatziz.

Txostenak

Doktorego tesia irakurtzeko eta defenditzeko, beharrezkoa izango da gutxienez epaimahaiko bi kide titularrek aldeko txostena egitea. Proposatutako adituek hilabeteko epea izango dute, tesia

bidali zaien egunetik kontaktzen hasita, DPBAra txostena bidaltzeko, banaka idatzita eta arrazoiak argudiatuta. Txosten horretan, tesia ebaluatuko dute, eta berariaz adierazi beharko dute ontzat ala txartzat ematen duten. Horretarako, dagokion dokumentua bidaliko die idazkaritza akademikoak (**D.122. TESIAREN BURUZKO TXOSTEN ARRAZOITUA**).

Tesiarekin batera, Idazkaritzatik eskuragarri jarriko da Jardueren Dokumentua epaimahaiarentzat, prestakuntza jardueren berri emateko, doktorego tesiaren ebaluazioaren osagarri gisa.

Nazioarteko doktoregoaren aipamena lortu nahi izanez gero, bi kalitate txosten gehitu beharko dira, gutxienez Espainiatik kanpoko goi mailako hezkuntza erakunde edo ikerketa instituturen bateko 2 aditu doktorek eginak (horri buruz, ikus XIII. atala).

2. TESIA IRAKURTZEKO TRAMITEA ONARTZEA ETA EPAIMAHAIA AUKERATU ETA IZENDATZEA

Gordailu aldia iragan eta gero, jasotako iruzkin eta txostenak kontuan hartuta eta egokitzat jotako adituekin kontsulta eginda, DPBAk erabakiko du:

- Ea baimenik ematen duen tesia jendaurrean aurkezteko. Baimenik ematen ez badu, idatziz azaldu beharko dizkie arrazoiak doktoregaiari, tesi zuzendariari eta tutoreari.

3. EPAIMAHAIA OSATZEA ETA HAREN ALDEZ AURRETIKO BETEBEHARRAK

Osaera

DPBAk, doktoregaiak aurkezturiko dokumentazioa ebaluatu, eta epaimahaia izendatuko du: 3 kide titular eta 2 ordezeko. Kide titularretatik bakarra izan ahalko da UVICekoa edo MUKoa. Doktorego programaren DPBAk hala proposatuz gero, onartuko da bost kide izatea epaimahaian. Halakoetan, ezin egongo dira bi kide baino gehiago izan UVICekoak edo MUKoak.

Epaimahaikide guztiak doktoreak izango dira, eta esperientzia egiaztatua izango dute ikerketan. Esperientzia hori egiaztatzeko, honako baldintza hauetakoren bat bete beharko da:

- a) Ikerketa ibilbide bat izatea (seiurteko bat).
- b) Ikerketa akreditazioa edo ikerketa aurreratuaren akreditazioa izatea.
- c) Jardunean den proiektu lehiakor finantzatu bateko kide izatea.
- d) Erkidego autonomoan onarturiko ikertalde bateko kide izatea.

Nazioarteko epaimahaikideen kasuan, aurreko baldintzetariko baten baliokidea (CV aztertuko da).

Zuzendariak, zuzendarikideak eta tutoreak ezin izango dira inolaz ere izan epaimahaiko kide, ezta tesiko ikerketatik eratorritako lan argitaratuen egilekideak ere.

Erretiratuta edo eszedentzia egoeran dauden irakasleek/doktoreek ekintza akademikoetan parte har dezakete, beti ere, baldintza hauetako bat betetzen badute:

- o CNEAIk (Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Batzorde Nazionala) edo ikerketa jarduera ebaluatzeko eta akreditatzeko agentzia baliokideren batek aitortutako seiurteko bat edo tarte baliokideren bat izan duten ikertzaile eta irakasleak izatea.
- o CNEAIk ezagutza arlo bakoitzean ezarritako irizpideei jarraituz MUko DPBAk aitortutako bost ekarpen garrantzitsu akreditatzen dituzten orotariko erakunde publiko zein pribatu, zentro, instituzio eta entitateetako ikertzaileak izatea.

DPBAk epaimahaiko presidentea eta idazkaria izendatuko ditu. Presidentea ikerketa esperientzia egiaztatu handiena eta/edo kargu akademiko gorena duen epaimahaikidea izango da.

Doktoregaiak Nazioarteko Aipamena lortu nahi izanez gero, Espainiatik kanpoko goi mailako hezkuntza erakunde edo ikerketa instituturen bateko aditu bat (nazioarteko egonaldiaren arduraduna ez beste norbait) egon beharko da gutxienez epaimahaian.

Epaimahaiko kide titularren batek uko egiten badio epaimahaikide izateari, presidentek dagokion ordezkoa paratuko du haren ordeze, eta hala jakinaraziko dio DPBAri. Ustekabeko kausaren batengatik presidentea ordeztu behar bada, DPBAk proposatuko du haren ordezkoa, gainerako epaimahaikideen artean aukeratuta, ordezeko kideak barne. Tesi defentsaren egunean, epaimahaikide guztiek egon behar dute.

Epaimahaia osatzea

DPBAk izendaturiko epaimahaia osatutzat joko da behin epaimahaikide guztien (titularrak zein ordezkoak) adostasuna lortuta, DPBAk tesia tramiterako onartu eta epaimahaia izendatzeko ekitaldi berean.

DOKTOREGO TESIA JENDAURREAN IRAKURTZEKO ETA DEFENDITZEKO EKITALDIA

1. Defentsa ekitaldia doktoregaia matrikulatuta dagoen unibertsitatean edo online (ikus online protokoloa izeneko I eranskina) izango da, jendaurrean, epaimahaikideak ere aurrean direla. Doktoregaiak tesia azaldu eta defendatuko du 45 bat minutuan: zer ikertu duen, metodologia, edukia eta ondorioak. Aipamen berezia egingo die ekarpen originalei.

2. Epaimahaikideek nahi beste galdera egingo dizkiote doktoregaiari. Ekitaldi publikoan diren doktoreek aukera izango dute galderak egiteko; epaimahaiko presidentek erabakiko du noiz eta nola. Epaimahaikideek eskura izango dute doktoregaiaren Jardueren Dokumentu Pertsonalizatua. Dokumentu horretan, doktoregaiak egindako prestakuntza jarduera guztien berri emango da. Segimendu dokumentu hori ez da erabili puntuazio kuantitatiborik emateko; bai, ordea, ebaluazio kualitatiboa egiteko, doktorego tesiaren ebaluazioaren osagarri gisa.

3. Tesiaren azalpena eta defentsa amaitu eta gero, epaimahaiak kalifikazio globalaren berri emango du, ekitaldian bertan: «Ez gai», «Gai», «Oso ongi» edo «Bikain». Kalifikazioarekin batera, txosten bat ere entregatuko du. Epaimahaiak «cum laude» izendapena ere proposatu ahalko du, baldin eta aho batez eta isilpeko boto bidez erabakitzen bada. (**D.124 DOKTOREGO TESIAREN EBALUAZIOA** dokumentua).

4. Epaimahaiko idazkariak tesian kalifikazio agiria, epaimahaikideen isilpeko botoen gutun-azal itxi eta zigilatuak eta egokitzat jotzen duen beste edozein dokumentu (doktore tituluaren nazioarteko aipamenaren agiria...) helaraziko dizkio DPBAri, pertsonalki edo unibertsitateko erregistroen bitartez. Gero, DPBAk txosten bat egingo du; hark unibertsitate bakoitzean doktoregaien espedienteak izapidetzeaz arduratzen den unitatera bidaliko du, han doktoregaiaren espedienteari gehitu eta doktore tituluaren tramiteak has ditzaten. **D.116 DOKTOREGO TESIAREN IRAKURKETAREN ETA DEFENTSAREN AGIRIA), D.116B (CUM LAUDE IZENDAPENAREN AGIRIA** eta **D.124 DOKTOREGO TESIAREN EBALUAZIOA**.

Titulua ematea eta tesia erregistratzea. Tesia ontzat eman ondoren, idazkaritza akademikoak tesian fitxaren ale bat bidaliko du unibertsitateko Errektoregora (paperean eta PDFn), artxibatu eta dokumentazio gisa gordetzeko. Indarrean den ereduaren arabera bete behar da fitxa hori: **D.117. DOKTOREGO TESIAREN FITXA - TESEO**.

MUko Errektoregoko zerbitzuek tesian ale bat bidaliko dute Hezkuntza Ministeriora, formatu elektronikoan, baita informazio osagarria ere, dagozkion xedetarako.

Tutore bat baino gehiago dituzten tesietan, aurretik hitzarmen bat sinatu beharko da, berriaz jasotzeko ea unibertsitate batek edo denek emango duten titulua; hitzartutakoaren arabera zehaztu beharko da zein unibertsitatetan erregistratuko den tesia.

5. LANA EDO HAREN ZATI BAT ARGITARATZEA GALARAZTEKO PROZESUEN BABESPEAN DAUDEN DOKTOREGO TESIEN IRAKURTZEKO PROZESUA

DPBAk salbuespentzat hartzen dituen kasu batzuetan (esate baterako, enpresa edo erakundeek parte hartzen dutenean programan, konfidentzialtasun hitzarmenak daudenean enpresekin edo tesiko edukiei buruzko patenteren bat sortu denean), Batzordearen esku egongo da erabakitzea tesian irakurketan eta defentsan ez publizitaterik egitea konfidentzialtasuna gorde beharreko alderdiei buruz. Hona hemen horretarako prozedura:

Prozedura:

Teknologia edo ezagutza babesteko edo transferitzeko prozesuen babespean dauden doktorego tesiak.

a) Doktorego tesia amaitu ondoren, DPBAk salbuespentzat hartzen dituen kasu batzuetan (esate baterako, konfidentzialtasun hitzarmenak daudenean enpresekin edo tesiko edukiei buruzko patenteren bat sortu denean), doktoregaiak DPBAri eskatu ahalko dio (**D.137**

BABESTU BEHARREKO EDUKIEI BURUZ PUBLIZITATERIK EZ EGITEKO ESKAERA dokumentua aurkeztuz) publizitaterik ez egiteko konfidentziasuna gorde beharreko alderdiei buruz, ez jendaurreko ekitaldian eta aurretiko ebaluazioan, ez tesia defenditzeko jendaurreko ekitaldian.

b) Eskaera onartzeko, egiaztatu beharko da edukiok isilpean gordetzea ezinbestekoa dela babes edo transferentzia prozesua behar bezala gauzatu dadin.

c) DPBAk erabaki bat hartuko du eskaera horri buruz, eta doktoregaiari, zuzendariari, tutoreari eta programaren batzorde akademikoari emango die haren berri.

d) Dagokion fakultateak publizitatea mugatzeko eskaera onartuz gero, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

1. Kanpo ebaluatzaileek eta epaimahaikideek konfidentziasunerako konpromisoa sinatu beharko dute, **D.132. EPAIMAHAIKIDEEN ETA KANPO INFORMATZAILEEN KONFIDENTZIALTASUN KONPROMISOA** dokumentuan.
2. Ekitaldi publikoan, DPBAk berariaz erabakitako baldintzak betez berrikusi ahalko da doktorego tesia.
3. Defentsarako ekitaldi publikoa mugatuta egongo da konfidentziasunerako akordioan zehaztutako ataletan.
4. Erakundeen gordailuen artxibo elektronikoaren zabalkundeari dagokionez (Ministerioarenak barne), artxibok babespean egongo dira behar adina denbora.

XI. DOKTORE TITULUA EMATEA

Doktorego tesia gainditu ondoren, interesdunak doktore titulua eskatu ahalko du matrikula egina duen zentroko idazkaritza akademikoan.

Bi unibertsitateetako errektoreek emango dute titulua, dokumentu bakar batean.

Doktore titulua ofiziala izango da, eta estatu osoan izango du balioa; xede akademiko guztietarako balioko du, eta irakaskuntzarako eta ikerketarako gaituko du, lege xedapenetan adosturikoari jarraituz.

XII. MUGIKORTASUNA

Mugikortasun ekintzek bi helburu dituzte: batetik, egonaldiak egitea goi mailako hezkuntza erakundeetan edo zentro teknologikoetan, doktoregaiak nazioarteko doktorearen aipamena lor dezan; bestetik, egonaldiak egitea doktorego tesiak ko-tutoretzan egiteko atzerriko unibertsitateetako doktoreekin.

Lehen helburuari dagokionez, aldez aurretik proposatu beharko da Ikerketa Planean, eta tesi zuzendariak onespena eman beharko du.

Egonaldia amaitzean, eta gehienez ere tesia gordailuan utzi bitarteko epean, doktoregaiak dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du Zerbitzu Akademikoen sailean, baldintzak betez gero nazioarteko doktorearen aipamena eman diezaioten.

Ko-tutoretzan egindako tesien kasuan (hau da, mugikortasunerako bigarren ekimen motan), ikerketa lerroaren tesi proposamenean sartu behar da aukera hori, hitzarmen batekin lagunduta. Honako alderdi hauek bilduko dira hitzarmen horretan:

- ✓ Nortzuk izango diren hitzarmena sinatu duten goi mailako bi hezkuntza erakundeetako zuzendariak.
- ✓ Zeintzuk izango diren erakundeetako egonaldien plangintza eta tesiaren segimendurako eta kontrolerako mekanismoak.
- ✓ Hala badagokio, berariazko akordio bat ko-tutoretzan egindako doktorego tesia irakurtzeko eta ebaluatzeko epaimahaian parte hartzen duten erakundeetako tesi zuzendarien artean.
- ✓ Tesia behin ala bi aldiz (hau da, unibertsitate bakoitzean bat) irakurriko den.
- ✓ Ko-tutoretzan egindako tesiaren titulua zein unibertsitatek emango duen eta erregistroa zein unibertsitatean egingo den.

XIII. NAZIOARTEKO DOKTOREAREN AIPAMENA

Nazioarteko doktorearen aipamena lortzeko baldintzak

a) Atzerrian egonaldi bat egitea

Tesia egin bitartean eta gordailuan utzi aurretik, 3 hilabeteko egonaldi bat egin behar da gutxienez Espainiatik kanpo, goi mailako hezkuntza erakunde batean edo prestigiozko ikerketa zentro batean, ikasketak edo ikerketa lanak egiteko, tesi zuzendariaren onespenearekin eta DPBAren baimenarekin.

Prozedura eta dokumentuak

- Egonaldia amaitzean, doktoregaiak alderdi hauen berri emango du ziurtagiri baten bidez: goi mailako hezkuntzako zein erakundetan bete duen egonaldia, noiztik noiz arte, zein helbururekin (doktorego tesia egiteko behar du izan), noren ikuskaritzapean eta zein sailetan.
- Aukera egongo da hiru hilabeteko (edo gehiagoko) egonaldia epeka betetzeko (epe bakoitzean hilabete bat gutxienez).

b) Hizkuntza

Nazioarteko doktorearen izendapena lortu nahi duten tesien zati bat Espainiako hizkuntza ofiziala ez den beste hizkuntza batean idatzi behar da (gutxienez, laburpena eta ondorioak).²

Prozedura eta dokumentuak

² Salbu hispaniar hizkuntzaren bat duen herrialde bateko egonaldi, txosten eta adituen kasuan.

- Tesiaren laburpena entregatzea (**D.111A, D.111B eta D.111C DOKTOREGAIAREN FITXA ETA DOKTOREGO TESIAREN LABURPENA**), gaztelaniaz, euskaraz eta tesiaren zati bat idazteko erabilitako atzerriko hizkuntzan.
- Tesia gordailuan uztean, tesi zuzendariak eta idazkari akademikoak egiaztatzea Espainiako hizkuntza ez den beste batean idatzi direla 99/2011 EDan eskatzen diren gutxienerako ataletan, aurreko paragrafoetan zehaztutakoaren arabera.

c) Aldez aurretiko txosten gehigarriak

Bi kalitate txosten gehitu beharko dira, gutxienez Espainiatik kanpoko goi mailako hezkuntza erakunde edo ikerketa instituturen bateko 2 aditu doktorek emanak.

Prozedura eta dokumentuak

Tesia gordailuan uztean, Espainiatik kanpoko goi mailako hezkuntza erakunde edo ikerketa instituturen bateko bi aditu doktoreren izenak proposatu behar zaizkio DPBAri (ezin dira tesiaren epaimahaiko kide izan), tesi aurreko txostenak eskatzeko.

d) Epaimahai espezifikoa osatzea

Espainiatik kanpoko goi mailako hezkuntza erakunde edo ikerketa instituturen bateko aditu doktore bat sartu behar da epaimahaian, aldez aurretik tesiari buruz txostenik idatzi gabek biak ere.

Prozedura eta dokumentuak

Tesia gordailuan uztean, Espainiatik kanpoko goi mailako hezkuntza erakunde edo ikerketa instituturen bateko aditu doktore baten izena proposatu behar da epaimahairako (ezin da izan aldez aurretik tesiari buruz txostenik idatzi duen inor, ezta tesiaren zuzendaria, zuzendarikidea edo ikaslearen atzerriko egonaldiaren arduraduna ere).

e) Tesiaren irakurketa espezifikoa

Tesiaren zati bat (laburpena eta ondorioak, gutxienez) Espainiako hizkuntza ofiziala ez den beste hizkuntza batean idatzi behar da, hispaniar hizkuntzaren bat duten herrialdeetako egonaldi, txosten eta adituen kasuan izan ezik.

Prozedura eta dokumentuak

Idazkaritzak baldintzak betetzen direla iragartzen duenean, tesi epaimahaiak tesia kalifikatuko du, eta erabakiko du ea «cum laude» kalifikazioa ematen dion, baita nazioarteko doktorearen aipamena ematen dion ere.

Baldintza guztiak beteak direlarik, Idazkaritza Akademikoak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari jakinaraziko dio ikasleak betetzen dituela nazioarteko doktorearen aipamena jasotzeko baldintzak, Tituluen Erregistro Nazionalen erregistra dezan.

XIV. INDUSTRIA DOKTOREAREN AIPAMENA

“Industria-doktorea” aipamena lortzeko baldintzak ondorengoak dira:

a) Lan- edo merkataritza-kontratu bat izatea. Lan- edo merkataritza-kontratu bat egon behar da doktoregaiarekin. Kontratua sektore pribatuko edo publikoko enpresa batek egin izan daiteke, edo administrazio publiko batek.

b) Industria-ikerketako edo garapen esperimentaleko proiektu batean parte hartzea. Interesdunak industria-ikerketako edo garapen esperimentaleko proiektu batean parte hartu beharko du, zerbitzua ematen den enpresan edo administrazio publikoan, eta ez unibertsitate batean. Industria-ikerketako edo garapen esperimentaleko proiektuak lotura zuzena izan behar du doktoregaia egiten ari den tesiarekin. Hori egiaztatzeko, memoria bat egin beharko da, eta unibertsitatearen onespena jaso beharko du.

Industria-ikerketako edo garapen esperimentaleko proiektua unibertsitatearen eta doktoregaiak zerbitzua ematen duen enpresaren edo administrazio publikoaren arteko lankidetzaz egiten bada, lankidetzarako esparru-hitzarmen bat sinatu beharko dute bi aldeek. Hitzarmen horretan, unibertsitatearen eta enpresaren edo administrazio publikoaren betebeharrak zehaztuko dira, baita doktoregaiak hautatzeko prozedura ere.

Doktoregaiak tesi-tutore bat izango du, unibertsitateak izendatua, baita arduradun bat ere, enpresak edo administrazio publikoak izendatua (doktorego-araudiari jarraituz, tesi-zuzendaria izan ahalko da pertsona hori).

“Industria-doktorea” aipamena eskatzeko prozedura:

1. «Industria-doktorea» aipamena eskatu nahi duten doktoregaiak Doktorego Programako Batzorde Akademikora jo beharko dute. Horretarako, D.144 dokumentua bete beharko dute («INDUSTRIA-DOKTOREA» AIPAMENA ESKATZEKO ORRIA).

Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek gehitu behar dira:

- Zerbitzua ematen den erakundearekiko lan- edo merkataritza-kontratuaren kopia.
- Industria-ikerketako edo garapen esperimentaleko proiektu batean parte hartzen duela eta doktoregaia egiten ari den tesiarekin lotura zuzena duela egiaztatzeko dokumentua(k).
- Industria-ikerketako edo garapen esperimentaleko proiektua unibertsitatearen eta enpresaren edo administrazio publikoaren arteko lankidetzaz egiten bada, unibertsitatearen eta enpresaren edo administrazio publikoaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenaren kopia.
- Doktorego-programan egindako tesiaren memoria.

2. Eskabidea eta dokumentazioa tesia gordailuan sartzean aurkeztu behar dira.

3. Doktorego Programako Batzorde Akademikoak industria-doktore aipamena jasotzeko eskabidea eta dokumentazioa aztertuko ditu. Hilabeteko epean, aldeko edo aurkako ebazpena emango dio doktoregaiaren eskaerari, espresuki adierazita ea memoriak lotura zuzenik baduen ikerketa-proiektuarekin, horretarako argudioak azalduta. Txosten hori egiteko, D.145 dokumentua beteko du (INDUSTRIA-DOKTOREGOKO IKERKETA-PROIEKTUAREN ETA TESI-PROIEKTUAREN ARTEKO LOTURARI BURUZKO TXOSTENA).

4. AURKAKO ebazpena emanaz gero, interesdunak berriz aztertzea eska lezake, behin bakarrik, Doktorego Programako Batzorde Akademikoari idatzi bat bidalita. Bigarren ebazpena apelaezina izango da. Halako kasuetan, Batzorde Akademikoak beste hilabete bat izango du behin betiko ebazpena emateko.

ALDEKO ebazpena dagoenean, tesiaren irakurketa egunean, Idazkaritzak baldintzak betetzen direla iragartzen duenean, tesi epaimahaiak tesia kalifikatuko du, eta erabakiko du ea «cum laude» kalifikazioa ematen dion, baita industria doktorearen aipamena ematen dion ere.

Baldintza guztiak beteak direlarik, Idazkaritza Akademikoak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari jakinaraziko dio ikasleak betetzen dituela industria doktorearen aipamena jasotzeko baldintzak, Tituluen Erregistro Nazionalean erregistra dezan.

XV. KO-TUTORETZAN EGINDAKO TESIAK

Ko-tutoretzarako hitzarmenak

Ko-tutoretzarako hitzarmenak sinatu ahal izango dira atzerriko unibertsitateekin, baldin eta bi aldeko akordioak eginak badituzte ko-tutoretzaren esparruan. Hitzarmen horretan, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste:

- Erakunde bakoitzeko tesi zuzendariak nortzuk diren aipatzea.
- Zer egonaldi, prestakuntza jarduera (halakorik badago) eta ikerketa jarduera egingo dituen ikasleak unibertsitate bakoitzean.
- Nola gauzatuko den tutoretza akademikoa.
- Doktorego tesia zein hizkuntzatan idatzi, irakurri eta defendatuko den (tesia atzerriko unibertsitate batean eginez gero).
- Tesiaren bi zuzendarikideen parte hartzea tesia kalifikatzeko epaimahaian.
- Zein unibertsitatek eman eta erregistratuko duen titulua (salbu eta legeak onartzen badu biek ematea).